



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2010eko irailaren 17a

90. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

—Foru Lege proposamena, zeinaren bidez ezartzen baita Nafarroako Gobernuak kideen eta Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioak gainerako goi karguen gobernu onaren kodea, baita hari lotuta edo haren menpe diren zuzenbide publikoko entitateetakoena ere. Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (3. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak babesa ematen dio terroristen ingurunea erakundeetan egotea ekidin aldera Espainiako Gobernuak hasitako lege aldaketari. Mozioa erretiratzea (7. or.).

—Adierazpen instituzionala. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak erabat arbuiatzen ditu Iranen izandako exekuzioak, giza eskubideen urraketa garbia baitira. Eledunen Batzarrak onetsia (7. or.).

—Adierazpen instituzionala. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak guztiz gaitzesten ditu pertsonen edo erkidegoen aurka jatorri etnikoan edo erlijio-sinesmenetan oinarrituta egiten diren intolerantzia erlijiosoko adierazpen guztiak, eta oinarri bereko kinadura, jazarpen edo indarkeria-adierazpen guztiak. Eledunen Batzarrak onetsia (8. or.).

F SAILA:

Galderak:

—Galdera, Museoen eta bildumen egoera kritikoari eta Museoei eta Bilduma Museografiko Iraunkorren Foru Legearen garapenari buruzkoa, Román Felones Morrás jaunak egina (9. or.).

—Galdera, Nafarroako Gobernuaren asmoari buruzkoa, 2010eko udal hauteskundeak baino lehen Nafarroako bizi eta itunak dituzten herrialdeetako herritarrak diren pertsonen hauteskunde-errolan izena emateko prozesua errazteko buruzkoa, Nekane Pérez Irazábal andreak egina (10. or.).

—Galdera, jakiteko Osasun Departamentuak ba ote duen larrialdiko osasun garraioaren erabilera okerraren berririk, María Chivite Navascués andreak egina (11. or.).

—Galdera, ikastetxeen erregelamendu organikoei buruzkoa, María Victoria Arraiza Zorzano andreak egina (11. or.).

- Galdera, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako institutuen antolamendu berriari buruzkoa, María Victoria Arraiza Zorzano andreak egin (12. or.).
- Galdera, Etxarri-Aranazko eta Leitzako osasun etxeetako ginekologia zerbitzuari buruzkoa, Aitor Etxarri Pellejero jaunak egin (13. or.).
- Galdera, Mendekotasunari Aurrea Hartzeko Planaren egungo egoerari buruzkoa, Aitor Etxarri Pellejero jaunak egin (13. or.).
- Galdera, Ijitoen Arreta Integralerako Planaren egungo egoerari buruzkoa, Aitor Etxarri Pellejero jaunak egin (14. or.).
- Galdera, Nafarroako Azpiegiturei buruzko 2008tik 2011ra bitarteko Plan Orokorrari buruzkoa, Aitor Etxarri Pellejero jaunak egin (14. or.).
- Galdera, Gazteen Emantzipazioari buruzko Planari buruzkoa, Aitor Etxarri Pellejero jaunak egin (15. or.).
- Galdera, 2008-2011 urteetarako Nafarroako Nazioarteko Planari buruzkoa, Aitor Etxarri Pellejero jaunak egin (15. or.).
- Galdera, Liburutegi Nagusiak Alde Zaharreko bizilagunei eman beharreko mailegu zerbitzuari eta lekuko kontsultari buruzkoa. Gaurkotasan handiko galdera gisa izapidetzea (16. or.).

G SAILA:**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Nafarroako Parlamentuko Mahaiaren Erabakia, 2010eko otsailaren 8koa, izaera pertsonaleko datuen fitxategiak sortzeari buruzkoa. “Osasun Laguntzaren Kudeaketa” izeneko fitxategia aldatzea (17. or.).

I SAILA:**Planak, komunikazioak eta programak:**

- Nafarroako Gobernuaren komunikazioa, Nafarroako Foru Komunitatearen 2010eko egoerari buruzko eztabaida egiteko (18. or.).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, zeinaren bidez ezartzen baita Nafarroako Gobernu kideen eta Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazio gainerako goi karguen gobernu onaren kodea, baita hari lotuta edo haren menpe diren zuzenbide publikoko entitateetakoena ere.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko irailaren 13an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobe-tzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak ondoko Foru Lege proposamena aurkeztu du: "Foru Lege proposamena, zeinaren bidez ezartzen baita Nafarroako Gobernu kideen eta Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazio gainerako goi karguen gobernu onaren kodea, baita hari lotuta edo haren menpe diren zuzenbide publikoko entitateetakoena ere."

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 147. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Aipatu foru lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

2. Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernura igortzea, Erregelamenduko 147. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2010eko irailaren 14an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Foru Lege proposamena, zeinaren bidez ezartzen baita Nafarroako Gobernu kideen eta Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazio gainerako goi karguen gobernu onaren kodea, baita hari lotuta edo haren menpe diren zuzenbide publikoko entitateetakoena ere

ZIOEN AZALPENA

Espainiako Konstituzioa eta Foru Hobetzea indarrean sartu zirenetik, ordenamendu juridikoa aberastu egin da, Gobernu kideen, administrazio publikoko goi karguen, funtzionario publikoen eta administrazio publikoetako gainerako langileen –foru erakundeen ordezkariak barne– jardueras-parrua osatzen duten zenbait arauen bidez, horiek guztiek beren eginkizunak legezkontasun-blokearen arabera bete ditzaten; izan ere, horrela ziurtatzen dira gardentasuna, eraginkortasuna eta funtzio publikoak betetzeko guztizko dedikazioa, eta saihesten dira haien independentzia eta inpartzialtasuna arriskuan jar dezakeen edota betebeh-ar publikoak betetzea kaltetu dezakeen jarduera edo interes oro.

Hala ere, gaur egun, beharrezkoa da botere eta erakunde publikoek herritarrekiko konpromisoa hartzea, eta, horren bidez, ordezkari publiko guztiek, beren eginkizunak betetzean, legeetan ezarritako betebeharrak betetzeaz gain, zenbait etika-eta jardun-printzipioek gidatuta jardutea; izan ere, printzipio horiek, orain arte arauetan espresuki islatu ez diren arren, haietatik ondoriozta daitezke, eta gobernu onaren kodea osatzen dute.

Horrenbestez, kontua da kode horretan jasotzea askotariko eskakizunekiko errespetua; horien artean egonen lirake, legezko edo erregelamenduzko arauak betetzeaz gain, beste zenbait berme

gehirri, botere publikoen eta herritarren arteko itun bat osatzen dutenak, Espainiako demokrazia-ko eta, kasu honetan, Nafarroako Foru Komunitateko erakundeen funtzionamenduari dagokionez.

Kode horren prestaketak fidelki erantzuten die Ekonomiako Lankidetzeta eta Garapenerako Antolakundeak (ELGA) eta beste nazioarteko erakunde batzuek emandako jarduera-ildoei, eta, hori dela eta, politika eraginkorra da gatazka horiek prebenitzeko eta kudeatzeko, tradizio eta jatorri demokratikoa duten beste herrialde batzuek abian jarritako antzeko esperientzien ildotik.

Horren haritik, eta Foru Komunitateko Administrazioari dagokionez, xedea da herritarrei gobernu onaren kode bat eskaintzea, non zehaztu eta azalduko baitira Gobernuako kideen eta goi karguen jardunak jarraitu beharreko erreferentziazko balioak, hala herritarren eskaerei erantzuteko, bizi diren erkidego politikoaren zati diren aldetik, eta norbanakoen helburuak errespetatu, babestu eta sustatzeko konpromiso sendoa eskaintzeko, elkartasuna, askatasun, justizia eta etika nagusi diren esparru batean.

Erreferentziazko balioak ez dira ondorio juridikorik gabeko printzipio etiko sorta bat. Aldiz, ordenamendu juridikoan indarrean dauden arauetatik ondorioztatzen diren printzipioak dira, halako moduz non horietako bakoitza zehazki adierazita dago haren urraketak edo hala-moduzko betetzeak dakarren ondorio juridikoa aurreikusten duen arau batean. Printzipio horiek bete beharko dira, betiere, ordenamendu juridikoan aurreikusitako moduan, batez ere Konstituzioan eta Nafarroako Gobernuari eta Lehendakariari buruzko Legean, zeina aplikatzen baitzaie Gobernuako kideei, bai eta Foru Administrazioiko goi karguei eta erakundeetako ordezkariari ere, toki entitateetako ordezkariak barne.

1. artikulua. Oinarrizko printzipioak.

Nafarroako Gobernuako kideak eta Foru Komunitateko Administrazioiko goi karguek, bai eta hari loturiko edo haren mendearen diren sektore publiko erakundeen eta zuzenbide publiko nahiz pribatuko erakundeen goi karguek eta Nafarroako toki entitateetako ordezkariak ere, jardungo dute, beren eginkizunen esparruan, Konstituzioan eta ordenamendu juridikoan ezarritakoari jarraikiz, eta beren jardunbidea egokituko dute kode honetan garaturiko etika- eta jardun-printzipioen arabera: objektibotasuna, integritatea, neutraltasuna, erantzukizuna, sinesgarritasuna, inpartzialtasuna, konfidentzialtasuna, zerbitzu publikoaren alde lan egitea, gardentasuna, eredugarritasuna, dirua ez xahutzea, irisgarritasuna, eraginkortasuna, zintzo-

tasuna, ingurumenaren eta kulturaren sustapena eta gizonen eta emakumeen arteko berdintasunaren sustapena.

2. artikulua. Printzipio etikoak.

1. Goi karguek giza eskubideak eta herritarren eskubideak sustatuko dituzte, eta saihestuko dute jaioleku, arraza, sexu, erlijio, iritzi nahiz bestelako inguruabar edo egoera pertsonal zein sozialengatik bereizkeria eragin dezakeen jarduketa oro.

2. Erabakiak hartzerakoan, xedea izanen da herritarren interes orokorreari erantzutea, eta, horretarako, interes komunera bideratutako gogoeta objektiboak hartuko dira oinarritzat, alde batera utzita printzipio horren aurkakoak izan daitezkeen jarrera pertsonalak, familiakoak, korporatiboak, bezerokeriazkoak edo beste edonolakoak.

3. Uko eginen diote beren kargu publikoarekiko interes gatazkak sortzeko arriskua izan dezakeen jardura pribatu edo interes orori. Ulertuko da interes gatazka dagoela foru lege honen mendearen dauden arduradun publikoek esku hartzen dutenean zenbait aferari buruzko erabakietan, afera horietan batzen badira kargu publikoari dagozkion interesak eta kargudunaren, haren senitarteko zuzenen baten edota hirugarrenekin konpartituriko interesak.

4. Kargu publikoek zainduko dute emakumezkoen eta gizonezkoen arteko errespetua sustatzen dela, eta hori zailtzen duten oztopoak kenduko dituzte.

5. Gainerako herritarrentzat ezarritako baldintza eta eskakizun berak aplikatuko zaizkie gauzatan dituzten eragiketa finantzarioetan, ondare-betebeharretan edo negozio juridikoetan.

6. Ez dute mesedeko trataturik onartuko pertsona fisikoaren edo entitate pribatuaren aldetik, ez eta pribilegioa edo justifikatu gabeko abantaila dakarren egoerarik ere.

7. Ez dute administrazio-izapideen edo -prozeduren arintzean edo ebazpenean eraginik izanen, horretarako bidezko arrazoirik ez badago, eta, inoiz ere ez, horrek pribilegioren bat baldin badakar kargu horien titularrentzat, haien senitarteko edo gertukoren batentzat, edota kaltegarri gertatzen bada hirugarrenen interesentzat.

8. Eraginkortasunaren, ekonomiaren eta efizientziaren printzipioen arabera jardunen dute, eta beti zainduko dute interes orokorra betetzen dela eta antolamenduariaren helburuak betetzen direla.

9. Ez dute parte hartuko Administrazioak interes orokorren zerbitzuen izan behar duen objekti-

botasuna zalantzan jar dezaketen negozio edo jardura finantzarioetan.

10. Beren jardura publikoa gardena eta irekia izanen da herritarrentzat, legeetan aurreikusitako salbuespenak bakarrik kontuan hartuta.

11. Une oro beren gain hartuko dute haien erabakien eta jarduketan erantzukizuna, bai eta zuzentzen dituzten erakundeena ere, legez eska dakizkien beste erantzukizun batzuek gain.

12. Beren jarduketan erantzukizuna beren gain hartuko dute goragokoen aurrean, eta ez dute erantzukizun hori besteren gain utziko, horretarako arrazoi objektiborik ez bada.

13. Esleituta dituzten eginkizunak beteko dituzte fede onaren eta zerbitzu publikoaren alde egitearen printzipioen arabera, eta ez dute printzipio horien aurka jardunen. Halaber, saihestuko dute esleituta dituzten zerbitzu publikoak betetzean izan beharreko neutritasuna zalantzan jartzen duen jardunbide oro.

14. Interes publikoko informazioa zabaltzeari buruzko legeetan ezarritakoa galarazi gabe, isiltasuna, sekretua eta zuhurtzia gordeko dira kargua dela-eta ezagutzen diren datu eta txostenei dagokienez.

3. artikulua. Jokabideari buruzko printzipioak.

1. Goi karguak betetzeak erabateko dedikazioa eskatzen du.

2. Alderdi politikoen zuzendaritzetako organo exekutiboetan karguak betetzeak ez du inolaz ere kaltetuko edo arriskuan jarriko arduradun publiko gisa dituzten betebeharrak betetzea.

3. Goi karguek, esleituta dituzten zerbitzuei dagokienez, ziurtatuko dute herritarrek modua izanen dutela zerbitzu publiko horien funtzionamenduari buruz informazioa jasotzeko duten eskubidea erabiltzeko, berariazko arauak ezarritako mugekin.

4. Beren eginkizunak betetzerakoan, arreta handiz jokatuko dute, halako moduz non hartutako betebeharrak enplegatu publikoen jardunbidearentzat eredu izan diren. Eredugarritasun hori aplikatuko dute, era berean, herritar gisa legeek eskatzen dizkieten betebeharrak betetzerakoan.

5. Baliabide publikoak zuhurtziaz administratuko dituzte, eta kargu publikoak betetzean beharrezkoa den duintasuna kaltetu dezakeen jardura oro saihestuko dute.

6. Ez dute oparirik, mesederik edo abantailazko baldintzetako emandako zerbitzurik onartuko, ohiturazkoak edo kortesiazkoak direnez harago,

ez eta bere eginkizunen betetzea baldintzatu dezakeen prestazio ekonomikorik ere, Kode Penalean ezarritakoa galarazi gabe.

Izaera instituzionala duten opari esanguratsuen kasuan, horiek foru erkidegoko ondarean sartuko dira, foru legeetan aurreikusitakoaren arabera eta erregelamendu bidez ezarritakoari jarraikiz.

7. Beren eginkizunak betetzerakoan, herritarren eskura egonen dira eta arreta osoa jarriko dute haien aurkezten dituzten idatzi, eskaera eta erreklamazio guztiei erantzuterakoan.

8. Nafarroako Gobernuak kideei eta goi karguei jaun/andrea protokoloa tratamendu ofiziala dagokie, kasuko kargu, lanpostu edo mailaren izenaren ondotik. Atzerrira egiten dituzten bidaietan, kasuko herrialdeko edo nazioarteko erakundearen araudiak ezarritako tratamendua egokituko zaie.

9. Foru Komunitateko Administrazioak kargua dela-eta haien eskura jartzen dituen ondasun eta zerbitzuen erabilera desegokirik ez dute egiten.

10. Kultur ingurunearen eta hizkuntza aniztasunaren babesa, bai eta ingurumenaren kalitatearen babesa eta hobetzea izanen dira foru lege honen mendean dauden arduradun publikoek beren eginkizunetan izanen duten jokabidea.

11. Ziurtatuko dute dokumentuak jasota gertzen direla, modu iraunkorrean, bere ondorengoei emate aldera.

4. artikulua. Gobernu onaren kodea betetzea.

1. Urtero, Nafarroako Gobernuak Lehendakari-tza, Justizia eta Barne kontseilariak eginiko txostena aztertuko du, zeinetan agertuko baitira foru lege honetan ezarritako etika- eta jardun-printzipioen balizko urraketak. Horren xedea izanen da printzipio horien urraketa ahalbidetu dezaketen prozedurak eta jarduerak aztertzea eta komenigarritzat jotzen diren neurriak proposatzea, Administrazioaren, erakundearen eta partaidetza publikoaren enpresen erabakien objektibotasuna ziurtatze aldera.

2. Toki entitateen kasuan, toki entitate bakoitzeko idazkariak txosten bat igorriko dio Nafarroako Gobernuari, zeinetan agertuko baitira foru lege honetan ezarritako etika- eta jardun-printzipioen balizko urraketak, Nafarroako Gobernuak azter dezan zeintzuk diren entitate horri gomendatu ahal zaizkion prozedura eta jardunbideak, jokamolde hobea eta etikoagoa ziurtatze aldera.

3. Nafarroako Gobernuak, kodean jasotako printzipioen urraketak izanez gero, beharrezkoak diren neurriak hartuko ditu.

Xedapen indargabetzailea. Foru lege honen aurka doazen lege- nahiz erregelamendu-xedapen guztiak indarririk gabe gelditzen dira.

Azken xedapena. Foru Lege honek indarra hartuko du Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara ematen den unean bertan.

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak babesa ematen dio terroristen ingurunea erakundeetan egotea ekidin aldera Espainiako Gobernuak hasitako lege aldaketari.

MOZIOA ERRETIRATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko irailaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak babesa ematen baitio terroristen ingurunea erakundeetan egotea ekidin aldera Espainiako Gobernuak hasitako lege

aldaketari, erretiratu izanaren berri izan zuela adieraztea. Mozio hori 2010eko apirilaren 16ko 39. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2010eko irailaren 14an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Adierazpen instituzionala. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak erabat arbuiaitzen ditu Iranen izandako exekuzioak, giza eskubideen urraketa garbia baitira.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2010eko irailaren 13an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1.- Nafarroako Parlamentuak erabat arbuiaitzen ditu Iranen izandako exekuzioak, giza eskubideen urraketa garbia baitira, eta inolaz ere ezin baitaitezke justifikatu ohituren edo balioen izenean.

2.- Nafarroako Parlamentuak babesten ditu gobernuz kanpoko zenbait erakundek giza eskubideen defentsaren alde eginiko kanpainak, heriotza-zigorren exekuzioa saiheste aldera, eta gizarte zibila animatzen du xede horrekin antolatzen diren ekitaldi guztietan parte har dezan.

Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernuari eskatzen dio, Irango Estatuarekiko bitariko

harremanen esparruan, Sakineh Mohammadi Ashtiani, Vali Janfeshani eta Sariyeh Ebadiren exekuzioak bertan behera utz ditzan.

Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernuari eskatzen dio Kanpo Arazoetako Ministerioaren bidez gaitzespen-deklarazio hau igor diezaien Irango agintari eskudunei, eta bidezkoak diren zuzemenak egin ditzan lege bat oneste aldera, haren bidez harrikatzea debekatu dadin zigor penal gisa, heriotza-zigorren erabateko abolizioa lortzeko bidean, eta pertsona helduen arteko sexu-harreman onartuak delitu gisa destipifikatu daitezken.”

Iruñean, 2010eko irailaren 14an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Adierazpen instituzionala. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak guztiz gaitzesten ditu pertsonen edo erkidegoen aurka jatorri etnikoan edo erlijio-sinesmenetan oinarrituta egiten diren intolerantzia erlijiosoko adierazpen guztiak, eta oinarri bereko kinadura, jazarpen edo indarkeria-adierazpen guztiak.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2010eko irailaren 13an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1.- Nafarroako Parlamentuak guztiz gaitzesten ditugu jatorri etnikoan edo erlijio-sinesmenetan oinarritutako intolerantzia erlijiosoko adierazpen, kinadura, jazarpen edo indarkeria-adierazpen guztiak, edozein dela eta haiek gertatzen diren tokia, are gehiago gobernu batek egiten baditu.

2.- Nafarroako Parlamentuak berresten du ijitoen herriari aitortzen dizkiola gainerako pertsonak dituzten eskubide eta betebeharrak guztiak, eta berriro adierazten du laguntzeko konpromisoa duela ijitoen komunitatearen normalizazioa arlo guztietan sustatze aldera, ijito herriaren irudi ona eta egiaz-

koa zabaltzeko, integrazio erreala oztopatzen duten estereotipoetan erori gabe.

3.- Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernuari eskatzen dio Kanpo Arazoetarako Ministerioaren bidez adierazpen hau igor diezaien Frantziako agintari eskudunei, kontuan hartuta etniaren gaineratik Europako herritarrak direla, eta, batez ere eta hori baino lehenago, beren eskubideak urratuta dituzten pertsonak direla.

4.- Nafarroako Parlamentuak bat egiten du Europako Parlamentuak eginiko adierazpenarekin.”

Iruñean, 2010eko irailaren 14an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

F saila:
GALDERAK

Galdera, Museoen eta bildumen egoera kritikoari eta Museoei eta Bilduma Museografiko Iraunkorren Foru Legearen garapenari buruzkoa.

ROMÁN FELONES MORRÁS JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko irailaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Román Felones Morrás jaunak aurkeztutako galdera, Museoen eta bildumen egoera kritikoari eta Museoei eta Bilduma Museografiko Iraunkorren Foru Legearen garapenari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2010eko irailaren 14an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko Román Felones Morrás foru parlamentariak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 191. artikuluan xedatuaren babesean, galdera hau aurkeztu du, Gustavo de Maeztu Museoko zuzendari eta Kultura eta Turismo Departamentuko zuzendari nagusi ohiak Corpas jaunari igorritako gutun irekiari buruzkoa, Osoko Bilkuran ahoz erantzuteko:

2010 urtean zehar, parlamentari honek behin eta berriro agertu du bere kezka foru erkidegoko museo eta bilduma museografiko iraunkorren inguruko politika dela eta. Kezka horren erakusgarri dira martxoaren 25ean eginiko galdera, Museoei eta Bilduma Museografiko Iraunkorrei buruzko Foru Legearen garapenari buruzkoa, eta 2010eko maiatzaren 9ko Osoko Bilkuran gai beraren inguruan eginiko ahozko galdera.

Kultura eta Turismo kontseilariak behin eta berriro erantzun du aipatu legea modu egokian garatzen ari dela, baina, hala ere, sektore horretako iritzi asko ez datoz bat ikuspegi baikor horrekin.

Azken egunotan, iritzi horiei gehitu zaie kalitatiboki garrantzitsua den beste bat; hain zuzen, egun Lizarrako Gustavo de Maeztu Museoko zuzendari den eta 2003-2008 urteetan Kultura eta Turismo Departamentuko Kultura zuzendari nagusi izandakoarena. Corpas jaunari igorritako gutun irekian –hedabide guztietan argitaratu da–, Gustavo de Maeztu museoko zuzendariak “eskari bat” egiten zuen, baita “gogoeta bat” ere, bere ustez “Nafarroako kulturaren alorrean garrantzitsua dena, zehazki, Nafarroako museoei dagokienez”.

Eskaria da 2011ko aurrekontuetan berreskura daitezela 2010ekoan desagerrarazitako kontusailak, horietako zenbait 80ko hamarkadatik agertzen baitziren.

Gogoetari dagokionez, hauxe esaten da hitzez hitz: “Erabaki horrek (kontusailak desagerraraztearena) arrisku larrian jartzen ditu gutxien dutenak, hau da, museo eta bilduma txikiak, zeinek bizirauteko beharrezkoak baitituzte Kultura Departamentuaren ekarpen txiki horiek. Badakit nolako zailtasunak izaten ari diren aurrean haien instalazioak irekitzen jarraitu ahal izateko, badakit noraino dauden etsipenak hartuta gune horietan lan egiten dutenak, bai eta nolako ahalegina egiten ari diren ere, ateak irekita izateko eta estimatzeko eta beharrezkoa den zerbitzu bat ematen jarraitzea. Museo eta bilduma txiki horien egoera kritikoa bada, gainerako museoena ez da askoz hobea. Denok irauten dugu ia baliabiderik gabe, gutxienekoarekin, normaltasun irudia –egiaz ez dago halakorik– eman nahian, eta Nafarroako Museoen eta Bilduma Museografiko Iraunkorren Foru Legearen aplikazioak eta garapenak gure erkidegoko museo oen sustapen- eta garapen-politika egiazko baten oinarriak jarriko dituen itxaropenean.”

Aurreko gogoetak ikusirik, hauxe jakin nahi dut:

- Bat al zatoz Lizarrako Gustavo de Maeztu museoko zuzendariarekin iritziarekin? Zer egin du edo zer egingen du zure departamentuak hain ego-

era lazgarria arintze aldera? Zer iritzi duzu gaur egun Museoei eta Bilduma Museografiko Iraunkorrei buruzko Foru Legearen garapenaren inguruan?

Iruñean, 2010eko irailaren 8an

Foru parlamentaria: Román Felones Morrás

Galdera, Nafarroako Gobernuaren asmoari buruzkoa, 2010eko udal hauteskundeak baino lehen Nafarroako bizi eta itunak dituzten herrialdeetako herritarrak diren pertsonen hauteskunde-eroldan izena emateko prozesua errazteko buruzkoa.

NEKANE PÉREZ IRAZÁBAL ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko irailaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nekane Pérez Irazábal andreak aurkeztutako galdera, Nafarroako Gobernuaren asmoari buruzkoa, 2010eko udal hauteskundeak baino lehen Nafarroako bizi eta itunak dituzten herrialdeetako herritarrak diren pertsonen hauteskunde-eroldan izena emateko prozesua errazteko buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2010eko irailaren 14an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko Nekane Pérez Irazabal andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuarekin bat, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

- Nafarroako Gobernuak ba al du asmorik 2010eko udal hauteskundeak baino lehen Nafarroan bizi eta itunak dituzten herrialdeetako herritarrak diren pertsonen hauteskunde-eroldan izena emateko prozesua errazteko?

Iruñean, 2010eko irailaren 9an

Foru parlamentaria: Nekane Pérez Irazabal

Galdera, jakiteko Osasun Departamentuak ba ote duen larrialdiko osasun garraioaren erabilera okerraren berririk.

MARÍA CHIVITE NAVASCUÉS ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko irailaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Chivite Navascués andreak aurkeztutako galdera, jakiteko Osasun Departamentuak ba ote duen larrialdiko osasun garraioaren erabilera okerraren berririk.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2010eko irailaren 14an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari María Chivite Navascués andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galde-

ra hau aurkeztu du, Osasuneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Iragan abuztuaren 31n, haxe irakur zitekeen foru erkidegoko hedabide batean: "Arartekoak eskatu du osasun garraioaren ikuskapena egin dadila". Horrekin batera, arartekoaren ebazpen bat aipatzen da.

Ebazpen horretan azaltzen da pertsona batek salatu egin zuela Lizarraldeko osasun garraioa esleituta duen enpresak zerbitzu horren erabilera okerra egiten zuela, eta larrialdiko garraiorako ambulanzia bat ospitaleko altak egiteko erabiltzen zuela.

Hori dela eta, honako galdera egin nahi dut:

- Osasun Departamentuak ba al du larrialdiko osasun garraioaren erabilera okerraren berririk? Hala bada, Osasun Departamentuak hartuko al du horri buruzko neurririk?

Iruñean, 2010eko irailaren 9an

Foru parlamentaria: María Chivite Navascués

Galdera, ikastetxeen erregelamendu organikoari buruzkoa.

MARÍA VICTORIA ARRAIZA ZORZANO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko irailaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Victoria Arraiza Zorzano andreak aurkeztutako galdera, ikastetxeen erregelamendu organikoari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hezkuntza Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2010eko irailaren 14an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari María Victoria

Arraiza Zorzanok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, ikastetxeen erregelamendu organikoari buruzkoa, Nafarroako Gobernu Hezkuntza kontseilariak kasuko batzordean ahoz erantzun dezan:

Hezkuntzaren alorrean egiten ari diren hausnarketak, bai eta etorkizuneko ildoak ere, hezkuntza sisteman aldizka egiten diren diagnosi-txostenetan oinarritzen dira. Denak bat datoz esaterakoan beharrezkoa dela ikastetxeen betiko antolamendua aldatzea, autonomia handiagoa lortzeko eta inguruko beharizanetara egokitzeko, bai eta ebaluazio-prozesu zorrotzak diseinatzea ere, aldaketa- eta hobekuntza-prozesuak errazte aldera.

Horrekin lotuta, ikastetxeen erregelamendu organikoak ezinbesteko tresna izan daitezke ikastetxeek autonomia handiagoa lortzeko prozesuei ekiteko.

- Zertan da gaur egun ikastetxeen erregelamendu organikoari buruzko araudiaren garapena?

Iruñean, 2010eko irailaren 9an

Foru parlamentaria: María Victoria Arraiza Zorzano

Galdera, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako institutuen antolamendu berriari buruzkoa.

MARÍA VICTORIA ARRAIZA ZORZANO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko irailaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Victoria Arraiza Zorzano andreak aurkeztutako galdera, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako institutuen antolamendu berriari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hezkuntza Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2010eko irailaren 14an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari María Victoria Arraiza Zorzanok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako institutuei buruzkoa, Nafarroako Gobernu Hezkuntza kontseilariak kasuko batzordean ahoz erantzun dezan:

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza abian jartzearen ondorioz, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Institutuak (DBHI) sortu ziren, hezkuntza-etapa hori emateko. Ikastetxe horien antolamendua Lehen Hezkuntzako ikastetxeen eta Bigarren Hezkuntzako institutuen artekoa da, eta horrek, disfuntzioak sortzeaz gain, ikastetxeen garatzeko aukerak mugatzen ditu. Egia bada ere ikastetxe horiek guztiek ezaugarri oso desberdinak dituztela, ez dugu ahaztu behar eskaintzen duten hezkuntza etapa oso garrantzitsua dela hezkuntza-garapenerako, etapa horretan aniztasunaren arreta eta egokitzapen-programak etengabe lan-tzen direlako.

Ikastetxe horietako irakasleak eta zuzendari-tza-taldeak aspaldian ari dira konponbide egoki bat eskatzen, ikastetxe horiek autonomia handiagoa izan dezaten eta irakasleen promozio-baldintzak hobetze aldera.

- Hezkuntza Departamentuak ba al du DBHIen antolamendu berrirako proiekturik?

Iruñean, 2010eko irailaren 9an

Foru parlamentaria: María Victoria Arraiza Zorzano

Galdera, Etxarri-Aranazko eta Leitzako osasun etxeetako ginekologia zerbitzuari buruzkoa.

AITOR ETXARRI PELLEJERO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko irailaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Aitor Etxarri Pellejero jaunak aurkeztutako galdera, Etxarri-Aranazko eta Leitzako osasun etxeetako ginekologia zerbitzuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatziko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2010eko irailaren 14an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejerok, Legebiltzarreko

Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

1. Etxarri-Aranazko osasun etxean ez dago baliabide nahikorik ginekologiako laguntza egokia emateko. Zergatik?

2. Ba al da antzeko kasurik Nafarroako beste eskualde batzuetan? Non, eta zergatik?

3. Zer kontusail eta zenbat diru erabili du Nafarroako Gobernuak 2007, 2008, 2009 eta 2010 urteetan ginekologiako laguntzarako Nafarroa osoan? Urteen eta erabilitako diru kopuruen arabera xehakatea nahiko nuke.

4. Nafarroako Gobernuak ba al du asmorik Leitzaldeko emakumeentzat ginekologia zerbitzua jartzeko Leitzako oinarrizko osasun etxean?

Iruñean, 2010eko irailaren 7an

Foru parlamentaria: Aitor Etxarri Pellejero

Galdera, Mendekotasunari Aurrea Hartzeko Planaren egungo egoerari buruzkoa.

AITOR ETXARRI PELLEJERO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko irailaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Aitor Etxarri Pellejero jaunak aurkeztutako galdera, Mendekotasunari Aurrea Hartzeko Planaren egungo egoerari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatziko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2010eko irailaren 14an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejerok, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

• Zein da Mendekotasunari Aurrea Hartzeko Planaren egungo egoera?

Iruñean, 2010eko irailaren 7an

Foru parlamentaria: Aitor Etxarri Pellejero

Galdera, Ijitoen Arreta Integralerako Planaren egungo egoerari buruzkoa.

AITOR ETXARRI PELLEJERO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko irailaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Aitor Etxarri Pellejero jaunak aurkeztutako galdera, Ijitoen Arreta Integralerako Planaren egungo egoerari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2010eko irailaren 14an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

- Zein da Ijitoen Arreta Integralerako Planaren egungo egoera?

Iruñean, 2010eko irailaren 7an

Foru parlamentaria: Aitor Etxarri Pellejero

Galdera, Nafarroako Azpiegiturei buruzko 2008tik 2011ra bitarteko Plan Orokorriari buruzkoa.

AITOR ETXARRI PELLEJERO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko irailaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Aitor Etxarri Pellejero jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Azpiegiturei buruzko 2008tik 2011ra bitarteko Plan Orokorriari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2010eko irailaren 14an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

- Zein da 2008-2011 urteetarako Nafarroako Kirol Azpiegituren Plan Orokorriaren egungo egoera?

Iruñean, 2010eko irailaren 8an

Foru parlamentaria: Aitor Etxarri Pellejero

Galdera, Gazteen Emantzipazioari buruzko Planari buruzkoa.

AITOR ETXARRI PELLEJERO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko irailaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Aitor Etxarri Pellejero jaunak aurkeztutako galdera, Gazteen Emantzipazioari buruzko Planari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2010eko irailaren 14an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

- Zein da Gazteen Emantzipazioari buruzko Planaren egungo egoera?

Iruñean, 2010eko irailaren 8an

Foru parlamentaria: Aitor Etxarri Pellejero

Galdera, 2008-2011 urteetarako Nafarroako Nazioarteko Planari buruzkoa.

AITOR ETXARRI PELLEJERO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko irailaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Aitor Etxarri Pellejero jaunak aurkeztutako galdera, 2008-2011 urteetarako Nafarroako Nazioarteko Planari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2010eko irailaren 14an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

- Zein da 2008-2011 urteetarako Nafarroako Nazioarteko Planaren egungo egoera?

Iruñean, 2010eko irailaren 8an

Foru parlamentaria: Aitor Etxarri Pellejero

Galdera, Liburutegi Nagusiak Alde Zaharreko bizilagunei eman beharreko mailegu zerbitzuari eta lekuko kontsultari buruzkoa.

GAURKOTASUN HANDIKO GALDERA GISA IZAPIDETZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko irailaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Xedatzea Patxi Telletxea Ezkurra jaunak aurkeztutako galdera, Liburutegi Nagusiak Alde Zaharreko bizilagunei eman beharreko mailegu zerbitzuari eta lekuko kontsultari buruzkoa, Osoko Bilkuran izapidetuko dela gaurkotasun handiko

galdera gisa. Galdera 2010eko irailaren 10eko 88. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2010eko irailaren 14an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiaren Erabakia, 2010eko otsailaren 8koa, izaera pertsonaleko datuen fitxategiak sortzeari buruzkoa.

“Osasun Laguntzaren Kudeaketa” izeneko fitxategia aldatzea

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko irailaren 6an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko otsailaren 8an harturiko Erabakiaren bidez, erakunde horretan dauden datu pertsonalen fitxategi automatizatuak arautu ziren. Ebazpen hori 2010eko martxoaren 22ko 36. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2010eko apirilaren 26an, aplikatzekoa den araudiari jarraikiz, aipatu fitxategiei buruzko jakinarazpena egin zitzaion Datuak Babesteko Espainiako Agentziari, inskriba zitezten.

Datuak Babesteko Erregistro Orokorreko Zuzendariordetza Nagusiaren maiatzaren 19ko jakinarazpenaren bidez, Fitxategi Publikoen arloko buruak adierazi zigun Nafarroako Parlamentuak onetsitako fitxategiak inskribatu zituztela Datuak Babesteko Erregistro Nagusian, Datuak Babesteko Espainiako Agentziaren zuzendariak emandako ebazpenekin batera. Halaber, jakinarazi zuen beharrezkoa zela zenbait fitxategiren alderdi batzuk aldatzea, eta hori egin zen Nafarroako Parlamentuko Mahaiaren 2010eko ekainaren 28ko Erabakiaren bidez, zeina argitaratu baitzen 2010eko uztailaren 28ko 91. Nafarroako Aldizkari Ofizialean.

Berriro, 2010eko abuztuaren 10eko erregistroko sarrera-zenbakia duen idatzi baten bidez, Azpizuzendaritza Nagusiak jakinarazi zuen fitxategien inskripzioa aldatu egin zela, Nafarroako Parlamen-

tuko Mahaiaren 2010eko ekainaren 28ko Erabakiaren arabera. Halaber, jakinarazi zuen, aurreko idatzian horren berri eman ez bazuen ere, beharrezkoa zela “Osasun Laguntzaren Kudeaketa” izeneko fitxategia aldatzea, segurtasun-maila altua emateko. Hortaz, bidezkoa da fitxategi horren segurtasun-mailaren kalifikazioa aldatzea eta beharrezkoak diren segurtasun-neurriak ezartzea.

Horren ondorioz, Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 20.2 artikulua betetze aldera, eta Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 37.1.1 artikulua esleitutako ahalmenak erabiliz, ERABAKI DA:

1. “Osasun Laguntzaren Kudeaketa” izeneko fitxategia aldatzea. Fitxategi horretan, h) letran, hau esan behar du: “Segurtasun neurriak: maila altua”.

2. Datuak Babesteko Espainiako Agentziari jakinaraztea, aipatu fitxategien inskripzioa aldatze aldera, Datu pertsonalak babesteko Lege Organikoa garatzen duen Erregelamenduan ezarritako moduari eta prozedurari jarraikiz.

3. Erabaki hau igortzea Nafarroako Aldizkari Ofizialera eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialera, argitara dadin.

Iruñean, 2010eko irailaren 6an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

I saila:
PLANAK, KOMUNIKAZIOAK ETA PROGRAMAK

Nafarroako Gobernuaren komunikazioa, Nafarroako Foru Komunitatearen 2010eko egoerari buruzko eztabaida egiteko.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko irailaren 13an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako Gobernuaren komunikazioa, Foru Komunitatearen egoerari buruzko politika orokorreko eztabaida egin dadin eskatzen duena, Osoko Bilkurak eztabaida dezan, Legebiltzarreko Erregelamenduko 200. artikuluan xedatuarekin bat etorritz.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2010eko irailaren 14an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Nafarroako Gobernuaren komunikazioa, Nafarroako Foru Komunitatearen 2010eko egoerari buruzko eztabaida egiteko

Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduen 200.1 artikulua ezartzen duenez, legegintzaturtearen lehenaldiko bilkuraldiaren hasieran, Gobernuaren lehendakariaren inbestidura eztabaida egiten denean edo bilkuraldi horretan hauteskundeak egin behar direnean izan ezik, Osoko Bilkura berezia eginen da Erkidegoaren egoerari buruzko politika orokorra eztabaidatzeko. Horretarako, Gobernuak politika orokorrari eta erkidegoaren egoerari buruzko komunikazio bat igortzen ahalko dio Parlamentuari, Osoko Bilkura berezi horretan eztabaida dadin.

Begi-bistakoa da mundu osoko krisi ekonomikoaren ondorio larriek baldintzatzen dutela gaur eguneko egoera, eragin handia baitu Nafarroan eta Espainian. Hain zuzen ere, krisi honek gizarte osoari eragiten dioten neurri zorrotzak hartzea behartu ditu agintariak. Hori dela-eta, heldu diren hilabeteetan, Gobernuaren funtsezko lehentasuna izanen da, lehen bezala, erantzun egokia eta

azkarra ematea, krisiaren ondorio nagusiei aurre egiteko eta ekoizpen jarduerari eutsi eta bultzada emateko.

Neurriak baliagarriak eta eraginkorak izan daitezzen, analisia, kontsentsua eta akordioa beharko dira alde aurretik, arlo politikoan, ekonomikoan eta sozialean, orain arte ere Nafarroan egin den bezala.

Akordio horren fruitu da "Nafarroa 2012" Plana: zenbait arlotan gure erkidegoa azpiegitura eta zerbitzu garrantzitsuez hornitzeko inbertsio multzo bat. Plana 2008. urtean sinatu zen, eta betetzen joanen da, eta, ondorioz, baliabide ekonomikoak eta lana eta aukera onak emanen dizkio Nafarroari geroari aurre egiteko.

Parlamentariaren gehiengo zabal batek egindako negoziazioa eta lortutako akordio politikoa izan dira legegintzaldi honen ezaugarri nagusiak, baina legegintzaldiaren bukaera honetan ere ezinbestekoak izanen dira herritarren problemei heltzeko eta etorkizunerako ekimen eta proiektuak bultzatzeko, gure etorkizuna argiagoa baita, berriki Nafarroako Garapen Ekonomikoaren Eredu Berria, MODERNA, definitu denetik. Adierazi beharra dago Moderna Planean 5.000tik gora eragile politiko, ekonomiko eta sozial izan direla laguntzaile, 2030. urtea izanik helmuga, eta planak gure gizartearen zutabe sendoenak nabarmentzen dituela: konfiantza pizten duen gizartea, sormen handiko pertsona kementsuek osatua, ekoizpen maila handiko eta mundura irekitako ekonomia berritzaile eta solidarioa bultzatzen duena, betiere inguru-nea errespetatuz eta bizi-kalitatea hobetzea amets.

Halaber, baitezpadakoa izanen da denbora tarte honetan Espainiako Gobernuarekiko harreman estu eta emankorrari eustea, azpiegitura proiektu nagusiak egiten hasi edo bukatzeko –Abiadura Handiko Trena, autobiak...–, eta aurrean bertan Hitzarmen Ekonomikoa egokiro gaurkotasua, krisiak kolokan jarritako oreka ekonomikoa bermatzeko. Hitzarmen Ekonomikoa gure autogo-

bernuaren funtsezko tresna da, baita gure gaitasunak garatzeko zutabea ere.

Bestalde, Nafarroako Foru Araubidea Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoa aldatzeko prozesua bururatu beharko dugu, bi helbururekin: batetik, legeak dioena betearaztea, eta, bestetik, Nafarroak beti eskumen maila handienari eustea.

Terroristen indarkeria desagerraraztea ezin utzizko helburua izanen da orain ere, irizpide hauek kontuan hartuta uneoro: Zuzenbide Estatua errespetatzea, herritar guztien eskubide eta askatasunak bermatzea, biktimen alde egitea eta haien sufrimendua aitortzea, eta gizartetik baztertzea

ekintza terroristak egiten, txalotzen edo justifikatzen dituztenak.

Gai hauen eta, duda izpirik gabe, eztabaidan sortuko diren beste batzuen bitartez, legebiltzarrean beren ordezkari diren talde politiko guztien jarreraren berri izaten ahal dute herritarrek, eta iritzia adierazteko aukera izanen dute, uste eta iritzi sendoagoz, denontzako gero hobeari aurre egiteko neurri egokienei buruz.

Horrenbestez, jakinarazten dizut Nafarroako Gobernuak erabakia hartu duela Parlamentuan Foru Komunitatearen egoerari buruzko eztabaidari bide emateko.

